

Hitzontzi

Hiru zomorro eta erdi

Juan Kruz Igerabide

Euliarena

Goiz batean, euli bat jaiki zen, eta esan zuen:

—Gaur zeregin asko dut.

Bost zeregin bete behar zituen egun hartan. Hori ondo pentsatua zeukan bezperatik. Lehenik, ogi apurrak bildu; bigarrenik, harraskako putzuan musua garbitu eta ura edan; hirugarrenik, hegan hara eta hona ibiliz airean mezu batzuk idatzi, marrazki eta guzti. Laugarrenik, lagun baten edo besteren kontra lasterketa egin hegan. Eta bosgarrenik? Bosgarren zeregina ahaztu egin zitzaion.

—Atzo gauean ederki asko gogoratzen nuen, bada, bosgarren hori —esaten zuen euliak bere artean—. Zein ote zen bosgarren zeregina?

Aurreko hanka mehe bat kopetan jarri, eta oroitzen saiatu zen. Alferrik, ordea. Ez zitzaion burura etortzen bosgarren eginbeharra. Beste



hankarekin ere kopeta igurtziz, halaxe egon zen egun osoan, bosgarren eginbeharra oroitu nahian. Ez zuen ogi apurrik jan, ez zuen musurik garbitu, ez urik edan, ez zuen airean mezurik idatzi, ez marraztu, ez zuen lasterkarik jokatu.

—Zer duzu, lagun? —galdetzen zioten beste euliek.

—Ez dudala oroitzen bosgarren eginbeharra.

Esan zioten, bada, uzteko alde batera bosgarrena eta egiteko beste laurak; ez zedila kezkatu hargatik. Baina, ez horixe, eulia egoskorra zen; ez zen handik mugituko bosgarren eginbeharra gogoratu arte.

Hala zegoela, mutiko bihurri bat atzetik etorri eta eskuz dak! harrapatu zuen. Hura iluna esku barruan! Hura beldurra! Gero, mutiko bihurriak hegadak errotuladorez margotu zizkion, horiz. Barreka, aske utzi zuen.

—Bosgarren eginkizuna —oroitu zuen bat-batean euliak—: ume bihurriengandik urruti ibiltzea!

Arkakusoarena

Zuriñe aitarekin etxera iritsi zenean, biek batera zapatak erantzirik, etxeko zapatilak jantzi zituzten; gero, musika leuna ipini, eta sofán eseri ziren.

—Aita: arkakuso bat daukazu buruan. Jauzi egiten ikusi dut.

—Ez da egia izango!

—Bai, bai: egia da. Burusoilaren erdian daukazu. Hondar ale bat ematen du.

Zuriñek titare bat hartu zuen, eta dak!, aitaren buru gaineko arkakusoa harrapatu.

—Utzi irteten! Utzi irteten! —egin zuen oihu arkakusoak.

—Hara! Hizketan ere badaki! —harritu zen aita; Zuriñeri normalagoa iruditu zitzaion, ipuin asko irakurtzen zituen eta.

—Utzi irteten! Utzi irteten!

Zuriñek honela erantzun zion arkakusoari:

—Bada, hizketan dakizunez gero, ipuin bat kontatu, eta utziko dizut alde egiten.

Arkakusoak baietz erantzun zion, baietz-baietz,



kontatuko ziola ipuin bat.

—Hasi, bada —agindu zion Zuriñek.

«Behin, gizon jakintsu baten burusoilaren gainera igo nintzen. Gizon jakintsuak burutazioak izaten zituenean, neuk ere burutazioak izaten zituen.

Hala, burutazioz burutazio, nire arkakuso-burua handituz joan zitzaidan, gizon jakintsuaren burusoilaren gainean. Berebiziko burua hazi zitzaidan, gorputza baino bi bider handiagoa, hiru bider handiagoa, edo auskalo zenbat bider handiagoa.

—Lehertuko zait! Burua lehertuko zait —ikaratu nintzen.

Zibulu-zabulu, balantzaka, buruari ezin bainion eutsi, jakintsuaren belarri ertzera inguratu, eta jauzi egin nuen indar guztiekin, jakintsuaren alaba txikiaren ile politaren gainera iristeko asmoz; baina, burua oso pisutsu baineukan, ez nintzen



iritsi jakintsuaren alabatxoaren ileraino, eta lurrera erori nintzen, zuzen-zuzen. Ez lur-lurrera, alfonbra gainera baizik. Hura zen hura basamortua! Zabala eta luzea. Ez, hareazkoa, ordea, harizkoa baizik, lehor-lehorra. Alfonbra haren gainean nengoan, hari potoloen artean galduta, baso itxian edo oihanean bezala.

Egunak egin nituen ur tantarik edan gabe, neure buru handia arrastaka, hari ugarien artean ezin aurrera eginik. Ia itoan iritsi nintzen, azkenean, alfonbraren ertzeraino. Han mahaitxo bat zegoen; mahai gainean, telebista bat; telebista gainean, loreontzi bat, lorez eta urez betea.

Geratzen zitzaidan indar apurra bildu, eta jauzi egin nuen mahai gainera; buruarekin ertza jo eta ia erori nintzen berriro lurrera, baina lortu orekari eustea. Gero, telebista gainera egin nuen jauzi, eta hurrena loreontzira, eta azkenik haren

barrura, buruz behera, putzura. Edan eta edan, ia -ia ito nintzen, baina lore baten zurtoinari helduta salbatu nintzen.

Lasaiturik, telebista gainera itzuli nintzen, jauzi handi batez. Hantxe jarri nintzen bizitzen. Eta telebistaren ondoan, egunak joan, egunak etorri, burua txikitzen hasi zitzaidan. Telebistak burua jaten duela diote, eta egia da: niri behintzat, ondo -ondoan jarrita, zimel-zimel geratu zitzaidan.

Halako batean, bururik gabe geratzeko arriskuan, larri eta estu, gizon jakintsu burusoil bat ikusi dut, sofan eserita. Jauzi handi bat egin, eta haren gainera erori naiz, burua pixka bat hazi arte han egoteko asmoz, ez denbora gehiegi badaezpada. Eta halaxe nagoela harrapatu nauzu, Zuriñe. Utzi irteten ilunpe honetatik, mesedez.»

Zuk zer egingo zenuke Zuriñeren lekuan ba- zeunde?

Erle bat eta bi

Erleak oso ondo antolatzen dira, baina badute akats bat; gaixotzen direnean, ez dute erizainik, ez medikurik.

Erlauntza batean, behin, gaixotasun gaizto bat izan zuten. Erle langile asko hil ziren; gehienak airean zihozela erortzen ziren, zerraldo. Lore bila irtenak ziren, lore zukua xurgatu, eta itzulian zeto- zela, ezin gehiago, eta lurrera amiltzen ziren.

Erlauntzako erregina kezkatu zegoen. Bera ere erdi gaixo zebilen, eta arrautzarik ezin zuen jarri. Sano-sano zeudenak erle-mandoak ziren, egun osoan etzanda, kolperik jo gabe. Erreginak lanerako agindua eman zien. Erle mandoak lanean hasi ziren, baina dena oker egiten zuten; haiek ekarritako eztiak ez zuen ezertarako balio. Gauzak estu zeuden. Erle mandoak ere gaixotzen hasi ziren, eta egun bakar batean erdiak hil ziren.

Gehiago lanik ez egiteko agindua eman zuen erreginak orduan. Gero, denak erlauntzan bildu ziren. Pentsatu zuten beste norabait lekutu behar zutela, erlauntza berri bat egitera, baina zenbat iritsiko ziren bizirik? Agian, bat ere ez.



Orduan, erabaki zuten, gaixorik ez zeudenak gaixoak sendatzen ahalegintzea, ordura arte beren kasa uzten baitzituzten eriak, ez zaindu eta ez ezer. Erle sanoak ur bila irten ziren; gaixo guztiak goitik behera garbitu zituzten, erlauntza ere goitik behera garbitu zuten, eta gaixoei injekzioak jarri zizkieten ipurdiko eztenaz. Hala, pittinka, sendatzen hasi ziren erle eriak.

Erlauntza osoa bere onera etorrita, berriro lanari ekin zioten, baina beste era batera. Erregina txandaka aukeratzen zuten, erle mandoek besteek bezala egiten zuten lan, eta erlerik trebeenak erizain lanetan jartzen zituzten, erlauntzako higiena zaindu zezaten, erleen egoeraz arduratu, eta gaixotzen zirenei ezten ziztada batzuk emateko.

Inork ez zuen uste erlearte berri bat asma zitekeenik, baina orain munduak aho-zabalik begiratzen dio erlauntza bitxiari.

Ez dakit honela zen edo hala zen, baina halako zerbait zen.